



# JENDAUURREKO JARDUERETARAKO HIZKUNTZA JARRAIBIDEAK

1. Donostiako Udalak eta bere Erakunde Autonomoek, Sozietate Publikoek, Enpresa Erakunde Publikoek zein partzuergo edota fundazioek euskara zerbitzu hizkuntza izango dela bermatu behar dute. Horretarako, herritarrei zuzendutako ekintza eta jardueretan, zerbitzua euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan nahiz hizkuntza gehiagotan eskainiko dute, betiere euskarari lehentasuna emanez.
2. Zuzenean kudeatzen dituzten zerbitzu edo jardueretan ez ezik, hirugarrenen bitartez eskaintzen diren kontratazio administratibo guztietan bermatu beharko dute euskara zerbitzu hizkuntza dela.
3. Diruz lagundutako, babestutako nahiz bide publikoan egiteko baimendutako jarduera guztietan, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan nahiz hizkuntza gehiagotan emango dira, betiere euskarari lehentasuna emanez, herritarrei zuzendutako bozgorailu bidezko mezuak eta jarduera ezagutzera emateko erabiltzen diren ahozko zein idatzizko elementu guztiak.



# JARRAIBIDE HAUEK BETETZEKO LAGUNTZA

Euskara Zerbitzuak uneoro eskainiko die hizkuntza aholkularitza eta testuen zuzenketa zerbitzua Donostiako Udala osatzen duten edo bere partaide diren erakundeei.

Harremanetarako:  
udala\_euskara@donostia.eus  
tel: 943 48 37 50



# HIZKUNTZA JARRAIBIDEAK



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián  
Euskara Zerbitzua



# AHOZKO HARREMANAK

Ahozko komunikazioak bere baitan hartzen ditu prentsaurrekoak, ekintza instituzionalak, hitzaldiak, kanpainak (ikus-entzunezkoak...) mahai inguruak, bilera irekiak, jardunaldi teknikoak, ikastaroak, erakusketak eta abar. Horietan guztietan, euskara edo euskara eta gaztelania erabiliiko dira, beste hizkuntzen erabilerrari uko egin gabe. Euskara lehentasunez erabiliiko da eta komunikagarritasuna bermatzeko behar diren baliabideak erabiliiko dira.

## JENDAUURREKO EKITALDIETAN

Udalak antolatutako, babestutako edo diruz lagundutako jendaurreko ekitaldietan euskara edo euskara eta gaztelania erabiliiko dira, beste hizkuntzak erabiltzeari uko egin gabe.

## AURREZ AURRE NAHIZ TELEFONAZ

Lehen hitza euskaraz egingo da eta herritarrek aukeratzeko duen hizkuntza ofizialean jarraituko da.

## UDALAK ANTOLATUTAKO BILERETAN

Euskara aurretik erabiliiko da bileraren atal guztietan, eta herritarren hizkuntza aukera nahiz komunikagarritasuna bermatzeko, behar diren baliabideak erabiliiko dira (aldibereko itzulpena, ikus-entzunezkoak, idatzizko euskarriak...)

# IDATZIZKO HARREMANAK

Idatzizko komunikazioak bere baitan hartzen ditu argitalpenak, iragarkiak, kanpainak (osagarri guztiekin: kartelak, esku orriak...), web orriak, ekitaldietako material idatzia, errotulazioa, seinaleztapena, hizkuntza paisaia... Hauetan guztietan, euskara edo euskara eta gaztelania erabiliiko dira euskarari lehentasuna emanez, beste hizkuntzen erabilerrari uko egin gabe. Helbideetako kaleen euskarazko izena, kale izendegi ofizialaren bidez egiaztatuko da.

## MAPA ETA PLANOETAN

MAPA ETA PLANOETAN

## DIRUZ LAGUNDUTAKO ETA BABESTUTAKO JARDUERETAN

DIRUZ LAGUNDUTAKO ETA BABESTUTAKO JARDUERETAN

## BIDE PUBLIKOETAKO JARDUERETAN

BIDE PUBLIKOETAKO JARDUERETAN

# EUSKARA NABARMENDU

Sortutako komunikazio eleaniztunetan, beharrezko neurriak hartuko dira euskara nabarmentzeko, hala nola, euskarazko testua aurrean edo gainean jartzea; zutabeak direnean, ezkerrekoa euskararentzat izatea; bi orrialde edo gehiago direnean, eskuinaldekoa euskaraz jartzea edo, edukiaren arabera, alderantzizkako edizioa egitea; euskarazko testua letra larrian edo lodian idaztea...

## KARTELETAN ETA PUBLIZITATEAN

Euskara lehenesteko beste bi adibide.

## IDATZI ELEBIDUNETAN

Euskara nabarmentzeko bideak: gainean, letra handiagoan, lodiagoan eta ezkerreko zutabeetan.

## ERROTULU ETA EUSKARRI ELEANIZTUNETAN

Hizkuntzak hurrenkera honetan joango dira: eus> es> fr> en

